

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILEKO ADMINISTRAZIO ZERBITZUA

Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko martxoaren 27ko eta ekainaren 5ko erabakien laburpena, zeinen bitartez Vitoria-Gasteizko udalerrian merkataritzaren eta ostalaritzaren alorreko enpresa txikien eraldaketa digitalerako laguntza ekonomikoak emateko berariazko deialdia 2020. urtea, onetsi baitzen

BDNS(Identif.): 510158

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalen kontsulta daiteke <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>, baita Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunean ere <http://www.vitoria-gasteiz.org>.

Lehena. Onuradunak

Vitoria-Gasteizko negozio-lokaletan diruz lagun daitezkeen inbertsio-proiektuak gauzatu dituzten pertsona fisiko eta juridikoak, baldintza hauek betetzen dituztelarik: gehienez berrogeita hamar langile izatea, urteko negozio-bolumenak edo urteko balantze orokorrak hamar milioi euro ez gainditzea, eta aurreko baldintzak betetzen ez dituzten enpresek ehuneko 25etik gorako partaidetza ez izatea bertan, eta lokal horietan Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren epigrafe hauetako merkataritza-jardueraren bat bideratzea:

64 Janari, edari eta tabako salerosketa, txikizka, establezimendu iraunkorretan (salbu 646: Tabako gaien eta erretzaileentzako artikuluen salerosketa, txikizka, eta 647.5: Janari eta edarien horniketa, tabakoa salbu, makina automatikoen bitartez).

65 Janariez bestelako produktuen salerosketa, txikizka, establezimendu iraunkorretan (salbu: 652.1: farmaziak: botika eta osasun eta higiene produktuen salerosketa, txikizka; 654.3: airetiko ibilgailuena; 654.4: ibai eta itsasoko ibilgailuena; 654.5: makinena; 654.6: mota guztietako ibilgailuetarako gurril-azalen, banden edo aire-ganberena, eta 655: erregai eta lubrifikatzaileen salerosketa, txikizka).

662.2: Era guztietako salgaien salerosketa, txikizka.

671, 672 eta 673: Elikadura zerbitzua, jatetxe, kafetegi eta tabernetan.

676: Elikadura zerbitzua txokolategi, izozki-denda eta hortxata-dendetan.

677.9: Jatetxeei dagozkien beste elikadura zerbitzu batzuk:

Berariaz baztertuta geratzen dira arlo hauetako enpresak:

- Kolektibitateei catering zerbitzuak eskaintzen dizkieten enpresak
- Asteburuetako gaueko ostalaritza-enpresak, salbu eta inbertsioak eguneko ostalaritza-jarduera bihurtzeko badira.

Dirulaguntza jaso ahal izateko gutxieneko inbertsioa: 300,00 euro.

Bigarrena. Xedea

Eraldaketa digitala sustatzea eta babestea, Vitoria-Gasteizko udalerriko merkataritzako eta ostalaritzako txikizkako enpresen lehiakortasuna hobetzeko tresna gisa, 2019ko urtarrilaren 1etik 2020ko uztailaren 15era bitartean egindako inbertsioak diruz lagunduta. Inbertsioak honakoak izan behar dute: ekipo informatikoak eta periferikoak; enpresaren jarduera nagusiarekin lotutako kudeaketa-tresnak edo softwarea; enpresaren webgunea garatzea; salmenta guneko komunikazioarekin, erosketa interaktiborako prozesua sortzearekin edo digitalizazioaren bidez produktua pertsonalizatzearekin lotutako tresnak eta ekipoak; marketin-estrategien aplikazioak eta diseinua.

Norgehiagoka baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa.

Hirugarrena. Oinarriak

2019ko abenduaren 9an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udalaren 2020ko dirulaguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak (2019ko abenduaren 23ko ALHAO, 147. zenbakia), eta 2020ko martxoaren 27an eta ekainaren 5an, berriz, 2020an Vitoria-Gasteizko udalerrian merkataritzaren eta ostalaritzaren alorreko enpresa txikien eraldaketa digitale-rako laguntza ekonomikoak emateko deialdiaren berariazko oinarriak. Udalaren webgunean www.vitoria-gasteiz.org eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke biak.

Laugarrena. Zenbatekoa

Laguntza deialdi honek 100.000,00 euroko zuzkidura du, 2020rako onetsitako udal aurrekontu-tuko 0822.4314.489.64 "Denda txikientzako laguntzak" partidaren kontura.

Dirulaguntzaren zenbatekoa egiaztatutako inbertsioaren ehuneko 70tik 40era bitartekoa izango da, lortutako puntuazioaren arabera, eta gehienez 5.000,00 euro, enpresa eta urteko.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik 2020ko uztailaren 15era arte.

Seigarrena. Ordainketa-egiaztagiriak aurkezteko epearen amaiera

2020ko irailaren 15a, egun hori barne.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 8a

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren
eta Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua
LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI*